

# Lea-Artibaiko enpresa traktoreen lehen topaketa

Azaro Fundazioak, bere helburuen artean inguruko enpresen lehiakortasuna handitzea dagoenez geroztik, enpresei zuzendutako zerbitzu berri bat jarri zuen martxan 2010. urtean, "Elkarguneak: indarrak batuz" deritzen den programa hain zuen ere.

Programa hau hurrengo lau helburuak lortzera bideratuta dago:

- Eskualdeko enpresen berrikuntza eta lehiakortasun mailetan eragitea.
- Eskualdeko enpresen errealitatea hobeto ezagutzea, eurentzako egokiak eta balio erantsi handidun zerbitzuak eskaini ahal izateko.
- Eskualdeko enpresen arteko ezagutza eta harremanak indartzea
- Eskualdeko enpresen arteko lankidetzak bultzatzea

Helburu hauen lorpen eraginkorrari begira, eta programa honen baitan, bi Elkargune desberdin jarri dira martxan, enpresen tamainaren arabera, bat ETE-en (Enpresa Txiki eta Ertain) Elkargunea, eta bestea Traktore deritzen diren Enpresen Elkargunea. Urtean zehar aldiro antolatuko lan saio desberdinen bitartez, ezagutza sortu daiteken esperientziak elkarbanatuko dira, eta interesgarriak izan daitezken gai ezberdinetan adituak diren pertsonak ere ekarriko dira.

Honen baitan, Enpresa Traktoreen lehen Elkargunea pasadan irailaren 30an ospatu zen Lea-Artibai Berrikuntza Gunean. Bertara 12 enpresetako gerenteak gonbidatu ziren, B+I Strategy-ko Sabin Azuak eta Manu Vizanek eman zielarik hasiera hiru orduko lehenengo saio honi "Enpresen Lehiakortasunerako Garapenerako Negozio Eredue Berriak" eztabaidarako gaiaren inguruan egindako aurkezpenarekin. Ondoren, parte hartzaileek euren esperientziak elkarbanatzeko aukera izan zuten; baita ere enpresen identitate eta ideologia propioen beharrianari, etorkizunera begiratzeko garrantziari, estrategia iraultzaileei, eta lidergoari buruz eztabaidatzeko.

Hau izan zen enpresentzako planeatuta dauden hainbat topaketen lehenengo bilera.

Urtean bi aldiz elkartzeko proposamenarekin bukatu zen Enpresa Bultzatzaileen lehen Elkargune hau.

